BESTELAKO XEDAPENAK

SEGURTASUN SAILA

5552

EBAZPENA, 2013ko abenduaren 9koa, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako zuzendariarena. Ebazpen honen bidez, erabaki da jendaurrean erakustea honako establezimendu honen Kanpoko Larrialdi Plana: Petróleos del Norte, S.A. (Petronor) (Muskiz).

Gai arriskutsuak dituzten enpresen Kanpoko Larrialdi Planak jendaurrean jarri behar dira, baldin eta gai arriskutsu horien kantitatea 1999ko uztailaren 16ko 1254/1999 Errege Dekretuaren eta haren moldaketen –119/2005 Errege Dekretuaren eta 948/2005 Errege Dekretuaren– I. eranskineko 1. eta 2. zatiko 3. zutabean zehaztutakoa edo handiagoa bada. Horrela ezartzen baitute 1254/1999 Errege Dekretuak, Istripu larrietan gai arriskutsuak tarteko direnean sortzen diren arriskuak kontrolatzeko neurriak onartzen dituenak, bere 11. artikuluan eta haren moldaketek –119/2005 Errege Dekretuak eta 948/2005 Errege Dekretuak– zein otsailaren 20ko 34/2001 Dekretuak, Istripu larrietan gai arriskutsuak tarteko direnean sortzen diren arriskuak kontrolatzeko neurrien gain eskumena daukaten Autonomia Erkidegoko organoak zeintzuk diren zehazten duenak, bere 3. artikuluko f) eta k) idatzi-zatietan.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren bidez industrialak bidali dituen agiriei erantzunez, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak, beste erakunde eta administrazio-zerbitzu batzuekin batera, aurrez aipatutako establezimenduaren Kanpoko Larrialdi Plana egin du. Plan horrek 20 egun baliodunez egon beharko du jendaurrean.

Horregatik, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean aurreikusitakoarekin bat etorriz, hauxe

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ebazpen hau EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, 20 egun baliodunеko epean jendaurrean erakustea jarraian aipatzen den establezimenduaren Kanpoko Larrialdi Planaren proiektua, bidezkotzat jotzen diren alegazioak aurkeztu ahal izan daitezen:

Petróleos del Norte, S.A. (Petronor) (Muskiz)

Aurreko artikuluan aurreikusitakoa bete ahal izan dadin, Kanpoko Larrialdi Plana Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saileko Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzan egongo da eskuragarri (La Torre eraikina, Forondako atea kalea 41; 01010 Vitoria-Gasteiz).

Bigarrena.– Alegazioak aipatutako epe horren barruan bideratu beharko dira, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saileko Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzara (La Torre Eraikina, Forondako atea kalea 41; 01010 Vitoria-Gasteiz). Sail horretako erregistro orokorrean aurkeztuko dira, edo bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean aurreikusitako moduetako edozein erabili ahal izango da.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko abenduaren 9a.

Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako zuzendaria,
PEDRO ANITUA ALDEKOA.